

Argitarazlea / Edita:

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

L.G. / D.L.:

VI -



## bat gehiago uno más

Niretzat San Prudentzio gu guztion herriko jai nagusiena baino askoz ere gehiago da. Armentia zelaian, gure folklorea hedatzeko adierazpen artistikoaz gain Herriarekiko konpromiso handia behar zenean, konturatu nintzen askatasun eta ongizate gune bakoitza eraiki egin behar dela. Era berean, guzti hau bakarrik lortzea oso zaila dela jakin nuen eta bide luze bati ekin behar zaionean aliatuak aurkitu eta mantentzeak duen garrantzia ikasi nuen. Egun, urte askoren buruan, gure pentsamenduen beharrezko osagarria dela sentitzen dugun horrek duen garrantzia ere, bere neurrian, aintzat hartzen dut.

Agur honetan ohikoetatik ihes egin nahi dut, poza ematen dutenetik, historikotik, barrea eragiten dutenetik, izan ere, nire ustez oraingoa haratago joateko aukera egokia da. Arabako Diputatu Nagusia naizen aldetik hitz hauek idaztea egokitu zait, baina lehenengo lerrotik azkenekora gogora ekarri nahi dut arabar guztien eskutik, ni bozkatu nindutenen eta hala egin ez zutenen eskutik, agindu nagusi bat jaso dudala, alegia, bat gehiago naizela beti gogoan izatea. Hau dela eta, postu hau betetzen dudan bitartean Aldundia bezalako Erakundearen nortasun-ezaugarrietako bat hurbiltasuna izateko ahalegina egingo dut, izan ere, arabar guztientzat bere Etxea izaten jarraitu behar du.

Egun, egoerari ikuspegi pixka batekin begiratu, denok batera lan asko egin dugula ziurtzen dut. Gaur egun zer garen uztartzen dudanean, garai batean amesten genuenetik nahikoa lortu dugula konturatzen naiz.

San Prudentio es para mi mucho más que la fiesta popular por antonomasia de todas y todos nosotros. Sobre las campas de Armentia fui consciente, cuando la divulgación de nuestro folklore además de una manifestación artística tenía mucho de compromiso con el País, que cada espacio de libertad o de bienestar hay que construirlo. Supe también que es muy difícil hacerlo en soledad y aprendí lo importante que resulta encontrar y mantener aliados cuando uno debe recorrer un camino complicado. Hoy, muchos años después valoro además, en su justo término, la importancia de lo que sentimos como imprescindible complemento de lo que pensamos.

Quiero en este saludo huir de lugares comunes como lo alegre, lo histórico, lo gracioso, porque ésta me parece una ocasión adecuada para ir algo más allá. Me toca escribir estas líneas desde la posición del Diputado General de Álava, pero desde la primera hasta la última quiero recordar que el principal mandato que he recibido de los alaveses y alavesas, de los/las que me votaron y de los/las que no, es no olvidar nunca que soy uno más. Por eso trataré, mientras ocupe esta posición, de hacer de la cercanía una de las señas de identidad de una Institución, como la Diputación, que para los alaveses/as tiene que seguir siendo su Casa.

Hoy, mirando las cosas con cierta perspectiva, certifico que hemos trabajado mucho todos juntos. Cuando comparo lo que somos hoy, me doy cuenta de que tenemos bastante de lo que en su día soñamos. He aprendido

Honela, urruti daudela uste arren, utopiak garapenaren eragile direla ikasi ahal izan dut. Eta, soilik amets egiten genuenean ez bezala, Aldundia proiektu eta emozioak aukera bat baino gehiago izateko bere beharra duten pertsonen mailan egotea nahi dut.

Horregatik ez dut sekula ahazten zelai honetan, zuek bezala, ibilia naizela eta ibiltzen naizela. Gainera bertan aurkituko nauzue agur hauek Diputatu Nagusi bezala sinatzeari uzten diodanean ere. Erabaki garrantzitsuetan zuzen jokatzeko gai izatea espero dut, eta barraskilo eta perretxikoen artean jaiok bizitzeko daukagun etxekotasun honek, leihatila atsegina baino gehiago izan nahi duen Administrazioarekiko harremanetan ere bizirik jarraitzea nahi dut.

San Prudentzio egun ona da asmo hau hartzeko. Momentu ona, aurpegi ilunekin eta mutur beltzeko eztabaidekin bukatu eta funtzionatzeko modu lasaiago batez ordezteko. Jarrera hau, egiteko era hau politika arlora eraman nahi nuke, izan ere, zuen eskutik jasotako erantzukizunak bezalakoak ditugunok egunero gogoratu behar dugu, lehen esan bezala, bat gehiago ginela, izan behar garela eta izango garela.


así que las utopías por lejanas que nos parezcan son motores de progreso. Y quiero, al revés de lo que ocurría cuando solo soñábamos, que la Diputación esté al nivel de las personas que la necesitan para convertir proyectos y emociones en mucho más que una posibilidad.

Por eso nunca me olvido de que anduve y ando por la campa, como vosotros. En ella me encontraréis también cuando deje de firmar estos saludos como Diputado General. Espero ser capaz de acertar en las grandes decisiones, y quisiera también que esa familiaridad con la que vivimos estas fiestas entre caracoles y perretxikos, viva también en vuestras relaciones con una Administración que quiere ser mucho más que una amable ventanilla.

San Prudentio es un buen día para hacerse este propósito. Buen momento para abolir también las caras largas, los debates a cara de perro y sustituirlos por otra forma de funcionar menos crispada. Me gustaría llevar ese espíritu, esa forma de hacer, al ámbito de la política, en el que debemos recordar cada día que los que tenemos responsabilidades como la que me habéis otorgado fuimos, tenemos que ser y seremos en el futuro, como antes decía, uno más.

**Xabier Agirre López**

**Arabako Diputatu Nagusia • Diputado General de Álava**



# pregoia pregón

## San Prudentzioren eta Estibalizko Andre Mariaren omenezko Jaietako aldarria

Pregón anunciador de las fiestas de San Prudencio  
y Nuestra Señora de Estíbaliz

**Teatro Principal antzokia**  
2007ko apirilaren 25a 25 de abril de 2007  
Vitoria-Gasteiz

**Pregoilaria • Pregonero**  
**Saturnino Ruiz de Loizaga**

### HITZAURREA

Agintari eta ordezkari txit agurgarriak, jaun-  
andereak, adiskideak.

Zuentzat nire frantziskotar agurra, anaita-  
sunezkoa, BAKE eta ONGizkoa.

Agur beroa egin nahi diet, eta etortzeagatik  
eskerrak eman, hemen dauden agintariei.  
Agur beroa hemen zaudeten guztioi ere.

Buenas Tardes / Arratsalde on guztioi.

Arabako Foru Aldundiko Kultura Batzordeak,  
adeitasunez, eta arabar zaharrena naizen al-  
detik, 2007ko San Prudentzio gure Zaindariko  
eta Estibalizko gure Andra Mariko jaietako  
pregoilaria izatera gonbidatu nau. Niretzat  
bihotzez eskertzen dudan ohorea izan dena,  
zuentzat mezu pozgarria izatea nahi dut, eta  
horretarako haren jaia ospatzen dugun hone-  
tan gure Santuaren bititza gogoratuko dut.

### PREÁMBULO

Excmas. Autoridades y representaciones, se-  
ñoras, señores, amigos todos.

A vosotros mi fraterno saludo franciscano de  
PAZ y BIEN.

Saludo cordialmente a las autoridades aquí  
presentes a las que agradezco su asistencia.  
Asimismo saludo cordialmente a todos los  
aquí presentes.

Buenas Tardes / Arratsaldeon guztioi.

El Consejo de Cultura de la Diputación Foral  
de Álava ha tenido la atención de invitarme,  
en mi condición de alavés viejo, a ser el pre-  
gonero de las fiestas de nuestro Patrono San  
Prudencio y de Nuestra Señora de Estíbaliz  
este año 2007. Y lo que para mí ha sido una  
distinción, que agradezco profundamente,  
quiero que sea para vosotros un mensaje  
gozoso, al evocar la vida de nuestro Santo  
en la celebración de su fiesta.



#### A. – SAN PRUDENTZIORI BURUZ ITURRI HAGIOGRAFIKO ETA HISTO- RIKOEK DIOSKUTENA

San Prudentzio antzinatik izan da ikertua. Mende urrun haietako pertsonaia guztiakin gertatzen den bezala, ez dugu izango haien bizitzak nahi genukeen zehaztasun guztiarekin agertzerik. Antzinako iturri historikoek ez zeuzkaten gaur egun dauzkagun kezka berberak. Baina utzi dizkiguten datuak nahikoak dira haren bizitza ezagutarazteko.

Asko dira Armentiaiko San Prudentzio Arabako zaindariaren bizitzari bereziki heldu dioten historialariak: Bernardo Ibáñez de Echávarri, José Martínez de Marigorta, Julián Cantera Orive, Nora Igartua Ugarte, eta beste asko.

Beste historialari arabar askok ere -Santu honi buruzko historia edo monografía berezirik idatzi ez badute ere- lekua utzi diote

#### A. – LO QUE NOS DICEN LAS FUENTES HAGIOGRÁFICAS E HISTÓRICAS SOBRE SAN PRUDENCIO

La figura de San Prudencio ha sido ampliamente estudiada desde antiguo. Como todos los personajes de aquellos lejanos siglos, no será posible perfilar sus vidas con la precisión que nos gustaría. Las fuentes históricas antiguas no tenían las mismas inquietudes que hoy en día tenemos. Pero son suficientes los datos que ofrecen para dar a conocer su vida.

Muchos son los historiadores que de una manera específica han tratado la vida de San Prudencio de Armentia, patrón de Alava: Bernardo Ibáñez de Echávarri, José Martínez de Marigorta, Julián Cantera Orive, Nora Igartua Ugarte, y muchos otros.

Otros grandes historiadores alaveses –si bien no han escrito una historia o monografía propiamente dicha sobre este Santo– también



arabar Santu honi euren idatzietan: besteak beste, José Joaquín Landázuri y Romarete; Rafael Floranes; Ladislao Velasco; Ricardo Becerro de Bengoa; Vicente González de Echávarri; Micaela Portilla; Gerardo López de Guereñu.....

S. Prudentzioren bizitza idaztea gogoan beti izan dudan ilusioa izan da, baina beste premia batzuk direla-eta beti joan da atzeratzen. Hala ere, gaur eskainiko dizkizuedan datu sakabanatuak biltzen joan naiz, gure Zaindariari eskaintzen diodan arabar zelaietako lore-sorta bat bezala.

Santua Eliza bisigodoaren menderik loriatsuenetan jaio eta bizi izan zen, orduko zeruetan lehen mailako izarrek egin zuten dirdira: San Eugenio, San Ildefonso eta Toledoko San Julián; San Leandro eta Sevillako San Isidoro, Cartagenako San Fulgencio; Bragako San Fructuoso eta Zaragozako San Braulio; haiek denak oso ospetsuak santutasun eta zientziagatik, eta haien alboan, bera ere distiratsu, izar dirdaitsuen pare, Martiologiorik zaharretan izena haien ondoan idatzita izateko merezimenduarekin, Armentiako San Prudentzio, Tarazonako gotzaina.

Santuen bilduma hagiografikoak guretzat berebizikoak diren kontuak oso aintzakotzat hartzen ez ziren garaietan egin ziren. Ez Lyongo Floro [+ 860], ez Usuardo [+ 877], ez Veda Beneragarria [675-735] (San Prudentzio bizi izan zen garaiko historialariak) ez ziren asko arduratu egungo kritikarekin zerikusia daukaten alderdiez. Haientzat santu baten bizitza bizi, aszetika eta mistika eredu bihurtzen da.

San Prudentzio, iturri historiko sonatuenean arabera, Tarazonako gotzaina izan zen. Haren bizitzari buruzko 18 kontakizun aurki ditzakegu, latindar idatzi anonimoak, eta Muniok, 969. urtean Arabako gotzaina zenak, idatzitako hagiografia bat.

Iturri literario eta hagiografiko horiek X. mendetik XIII.era doan garaikoak dira, eta gainontzeko

le han dado espacio en sus escritos a este Santo alavés: como José Joaquín Landázuri y Romarete; Rafael Floranes; Ladislao Velasco; Ricardo Becerro de Bengoa; Vicente González de Echávarri; Micaela Portilla; Gerardo López de Guereñu,.....

Escribir la vida de S. Prudencio ha sido para mí una ilusión acariciada y siempre postpuesta por otras urgencias. He ido recogiendo, no obstante, datos dispersos que hoy os ofrezco, como ramillete de flores del campo alavés que ofrezco a nuestro Patrono.

Santo que nació y vivió en los siglos más gloriosos de la Iglesia visigoda, en cuyo cielo brillaron durante ese tiempo como astros de primera magnitud San Eugenio, San Ildefonso y San Julián de Toledo; San Leandro y San Isidoro de Sevilla, San Fulgencio de Cartagena; San Fructuoso de Braga y San Braulio de Zaragoza, celebérrimos todos en santidad y ciencia, y a su lado resplandeciente también, como estrella refulgente, digno de ser escrito su nombre al par de ellos en los Martirologios más antiguos, San Prudencio de Armentia, obispo de Tarazona.

Las colecciones hagiográficas de los Santos se hicieron en épocas que tenían muy poca consideración de aspectos que para nosotros tienen una importancia capital. Ni Floro de Lión [+ 860], ni Usuardo [+ 877], ni Veda el Venerable [675-735] (historiadores de la época en que vivió San Prudencio) se preocupan mucho de los aspectos que tienen que ver con la crítica de nuestros días. Para ellos la vida de un santo se convierte en un ejemplo de vida, de ascética y de mística.

San Prudencio, según las fuentes históricas y más acreditadas, fue obispo de Tarazona. Encontramos hasta 18 relatos de su vidas, escritos latinos anónimos, y una hagiografía escrita por Munio, obispo de Álava, en el año 969.

Estas fuentes literarias y hagiográficas son del tiempo que va desde el siglo X al XIII, las

gehienak XIV, XV eta XVI. mendekoak dira, eta Armentia Prudentzio nor izan zen ezagutarazten eta deskribatzen digute.

Iturri horietatik gehienek muin jator berbera gorde dute, eta sarritan batzuk besteen berdin-berdinak dira, edo aldaketa gutxi batzuk dauzkate. Iturri hagiografiko edo kontakizun horietatik nahiko seguru ateratzen da Prudentzio VII-VIII mendeen artean bizi izan zela.

Hona hemen orain dela 13 mendeko herri sentipena islatzen duten **Armentia Prudentziori buruzko iturri hagiografikoek** funtsean diotena.


San Prudentzio Armentian jaio zen, Gasteiztik gertu, VII. mendearen erdialdera. Hamabost urte zituela Armentia aitaren etxea utzi zuen bizimodu bakarti eta anakoreta eroateko, S. Saturio eremutarraren gidaritzapean, Machadoren hainbeste oihartzun dakarren Duero ibaiaren ondoan, egungo Soriaren inguruan. Saturio anakoreta zaharra hil ondoren, Prudentzio Kalagorriara abiatu zen; gotzain-hiria eta Prudentziori zegokion elizbarrutiaren burua. Hemen hiri hartako eta inguruetako idolatrak ebanjelizatzen ahalegindu zen; bere predikuaeren arrakastak, bere bertuteek eta bere sendatze miragarrien ospeak herrialde osoko benerezioa eman zioten. Ondoren, Tarazonara joan zen; bertan katedraleko apaizen artean onarrezaten lortu zuen, eta haren lana tenplua eta gurtzarako tresnak garbitzea izan zen. Gutxika-gutxika, behin bere ahalegin eta ereduari esker nagusien konfiantza lortuta, zerbitzu jasoagoak agindu zizkieten: eliza bisigodoetan hain oparo erakusten ziren urre eta zilarrezko edergarrien zaintza. Ordena santuak jasotzeko egokitzat jo zuten, eta Artxidakono graduraino iritsi zen; garai hartan horrek aginpide handia zeukan elizbarrutiaren baitan. Denborarekin, elizbarrutiak gotzainik ez zeukala, apaizek eta herriak, denek batera, Tarragonako metropolitarrari Prudentzio gotzain izenda zezan eskatu zioten. Tarragonako Primatuak hautaketa baietsi zuen eta horrela Tarazonako gotzain kontsakratu zuen gure anakoreta ohia.

restantes pertenecen prácticamente en su mayoría a los siglos XIV, XV y XVI y nos proporcionan y describen la figura de Prudentio de Armentia.

La mayoría de estas fuentes conservan un núcleo genuino común, siendo muchas veces idénticas entre sí, o bien, con algunas variantes. De estas fuentes hagiográficas o relatos se desprende que Prudentio vivió con bastante certeza entre los siglos VII-VIII.

He aquí fundamentalmente lo que dicen las **fuentes hagiográficas de Prudentio de Armentia** que reflejan el sentir popular desde hace 13 siglos.

San Prudentio nace en Armentia, cerca de Vitoria, a mediados del siglo VII. A los quince años abandona la casa paterna de Armentia con el fin de llevar una vida retirada y anacoreta bajo la guía del eremita S. Saturio, cerca del río Duero de tantas resonancias machadianas, en las cercanías de la actual Soria. Muerto el viejo anacoreta Saturio, Prudentio dirige sus pasos hacia Calahorra, ciudad episcopal y cabeza de la diócesis a la que pertenecía Prudentio. Aquí se esfuerza por evangelizar a los idólatras de aquella ciudad y de la zona circunstante; el éxito de su predicación, sus virtudes y la fama de sus milagrosas curaciones le ganaron la veneración de toda la región. Más tarde, marcha a Tarazona, donde consigue ser admitido entre los clérigos de la catedral, encargándose de la limpieza del templo y los utensilios de culto. Poco a poco, ganada la confianza de los superiores con su empeño y ejemplo, le encomendaron servicios más altos: la custodia de las alhajas de oro y plata de que tan ricas se mostraban las iglesias visigodas. Se le consideró digno de recibir las sagradas órdenes, y llegó a la dignidad de Arcediano que, por aquella época, tenía una gran autoridad en la diócesis. Pasado un tiempo, estando sin obispo la diócesis, el clero y el pueblo juntos propusieron al metropolitano de Tarragona a que nombrase obispo a Prudentio. El Primado de Tarragona confirma la elección y consagra a nuestro antiguo anacoreta como obispo de Tarazona.





Kargu garrantzitsu horretan guztiek maita eta errespetatu zezaten lortu zuen, eta zintzoki bete zituen artzain onaren betebeharrak eta ardura handia izan zuen bakeari eusteko. Burgo de Osmako gotzainaren eta apaizen artean tirabirak sortu zirela-eta, alde biek berez Prudentzio hautatu zuten liskar dirudienez larria ebazteko. Hiri hartara iritsi zenean, zorionez, apurtutako baketa berreskuratzea lortu zuen. Gertaera horretatik hiru egunera hil zen, seguruenik 683. urtean, apirilaren 28an, sagarrondoak loratzen eta xirmenduak berdetzen zirenean. Leize batean hilobiratu zuten, Logroño hiritik 6 legoara. Leku horretan, handik urte batzuetara, Monte Laturceko (Clavijo) San Prudentzioko zistertar monasterio ospetsua eraiki zen.

Tipikoa eta klasikoa da San Prudentzioren la-gunak izandako Tarazonako apaizen eta Osmakoen arteko ika-mika; lehenek gorpua euren katedralean lurperatzeko eraman nahi zuten, eta bigarrenek ere uste zuten eurenean hilobiratzeko eskubidea zeukatela.

Hízose querer y respetar por todos en el desempeño de este importante cargo, cumpliendo fielmente con los deberes de buen pastor y procurando con gran cuidado mantener la paz. Habiendo surgido algunas discordias entre el obispo y el clero de Burgo de Osma, fue elegido Prudentio espontáneamente por ambas partes para dirimir la contienda que, según parece, era grave. Llegado a aquella ciudad, logró felizmente restablecer la perturbada paz. Murió tres días después de este episodio, seguramente el año **683**, el día 28 de abril, cuando los manzanos estaban en flor y los sarmientos verdegueaban. Fue sepultado en una cueva, a 6 leguas de la ciudad de Logroño. En este lugar, años más tarde se levantó el insigne monasterio cisterciense de San Prudencio de Monte Laturce (Clavijo).

Típica y clásica es la disputa entre los clérigos de Tarazona, que habían acompañado a San Prudentio, y que querían llevarse el cadáver para inhumarlo en su catedral, y los clérigos de Osma, que se creían también con derecho a sepultarlo en la suya.

Prudentzio Osman ala Tarazonan lurperatu behar zen ebazteko, garai hartan oso ohikoa zen eta Sevillako San Isidoro, Bujandako San Fausto, Osmako San Pedro eta beste batzuekin ere erabili zela ikusi dugun bidera jo zuten. Gorpua harena zen zamari baten gainean jartzean datza; animaliak gelditzeko aukeratzan zuen lekuan bertan hilobiratu behar zuten. Aberea Monte Laturceraino iritsi zen, Errioxan, eta bertan zendutako gotzainari laguntzen zioten apaizek hasieran San Vicente deitu zen eliza altxatu zuten.

Eliza 1025ez geroztik deitu zen San Prudentzioko monasterioa, Antso III. Nagusiaren erregalia batetik atera daitekeenez. Gaur egun ikusten diren hondakinak XII. mendeko eliza batenak dira, Laturceko San Prudentzio -Clavijo eta Leza del Río Leza ibaien artean.

Horiek dira San Prudentzioren omenez egindako Liturgia-ofizioan ematen diren albisteak, XVI. mendearan erdialdera argitaratutako Tarazonako elizbarrutiko brebiario batetik hartuak. Brebiarioak funtsean iturri hagiografiko eta historiko zaharrek kontatzen duten guztia batzen eta laburbiltzen du. Bestelako kontaera zabalago batzuk ez dira hain aintzakotzat hartze-koak, eta zalantza barik, XVI-XVII. mendeetako faltsutzaileek ukituak emanda daude.

## LABURBILDUZ:

VIII. mendeko erdialdera S. Prudentzio bazuten santutzat. San Prudentzioren buruzko lehenengo dokumentua Donemiliaga Kukulako kartularioak eman digu: 759. urteko apirilaren 24an.

**950.** urtez geroztik eta hurrengo mendeetan San Prudentzioren *erlikiei* egin zaizkien lekualdatzeek ere laguntzen digute. Literatura hagiografikoak datu historiko gutxi ematen baditu ere, irakurketa historikoa egiteko moduko atal batzuk dauzkagu, batez ere honakoak: 1. Armentian jaio zen; 2. Bizipen eremutarra izan zuen; 3. Tarazonako gotzaina izan zen; 4. Monte Laturceko hilobian lurperatu zuten,

Ante el dilema de dónde debía ser enterrado Prudencio, en Osma o en Tarazona, se acudió a un medio muy corriente en aquella época, y que hemos visto se usó con San Isidoro de Sevilla, San Fausto de Bujanda, San Pedro de Osma y otros. Fue colocar su cuerpo sobre una caballería de su propiedad; en el sitio elegido por el animal para pararse, allí tendría que ser sepultado. La bestia llegó hasta el Monte Laturce, en la Rioja, lugar donde los clérigos que acompañaban al obispo fallecido levantaron la iglesia denominada en un principio de San Vicente.


Esa iglesia se pasó a denominar monasterio de san Prudencio a partir de 1025, tal como se desprende de un privilegio de Sancho III el Mayor. Las ruinas que hoy se ven, son las de una iglesia del siglo XII San Prudencio de Laturce –entre los pueblos de Clavijo y Leza del Río Leza.

Estas son las noticias referidas en el Oficio litúrgico en honor de San Prudencio, tomadas de un **Breviario** de la diócesis de **Tarazona**, editado hacia la mitad del siglo XVI. Breviario que recoge y sintetiza fundamentalmente cuanto relatan las viejas fuentes hagiográficas e históricas. Otras relaciones más amplias son dignas de tener menos en cuenta y, sin duda alguna, retocadas por los falsarios de los siglos XVI-XVII.

## RESUMIENDO:

A mediados del siglo VIII a S. Prudencio se le tenía ya por Santo. El primer documento referente a San Prudencio nos lo proporciona el Cartulario de San Millán de la Cogolla: 24 de abril del año **759**.

Nos viene también en ayuda las diversas traslaciones de las sus **reliquias** de San Prudencio a partir del año **950** y siglos sucesivos. Si bien la literatura hagiográfica es parca en datos de carácter histórico poseemos varios apartados susceptibles de una lectura histórica, de modo especial: 1º. Que fue un personaje nacido en Armentia; 2º. Que vivió una experiencia eremítica; 3º. Que fue



eta 950. urtean ere haren gorpu beneragarririk bertan hartzen zuen atsedean artean; gero, 1052. urtean, haren erlikiak S. María de Nájera monasterioaren esku geratu ziren. Horiek dira haren bizitza markatzen duten eta oinarri historikoren bat duten datu laburrak.

992, 1039, 1052, 1069 eta 1092. urteetako mozarabiar egutegieki apirilaren 28an kokatzen dute San Prudentzioko jaieguna. Horrek erakusten du X eta XI. mendeetarako ere penintsulako Elizan orokorra zela egun hori ospatzea.

### **Azpimarratu nahi nukeen alderdi interesgarri eta esanguratsu bat:**

Armentia herriaren garrantzia da: Goi Erdi Aroko arabar gunerlijiosorik garrantzitsuen izan zen eta berak dauka Euskal Herriko lehenengo katedrala, IX. mendearen amaialdearako eta X. mendearen lehen erdian izan zen apezpiku-barrutiaren gotzain-hiria izan baitzen. Elizbarrutia Penintsulako Hegoaldeko lurraldeak musulmanen mende zeuden garaian sortu zen. Armentia elizbarrutia, Valpuestakoa bezalaxe, 1087. urtean akabatu zen.

Zergatik sortu zen Armentian Arabako apezpiku-barrutia, eta ez ospetsuagoak ziren Abendaño, Gasteiz edo Estibalitz, Beleia edo Agurain, Etxabarrí Ibiña, etab. bezalako beste udalen batean? Geroago kolegio-eliza maila izan zuen 1496. urtera arte. Seguruenik oraindik ere bizirik dago Armentian, hain zuzen ere, jaio zen Tarazonako gotzain eta Osmako bake-epaile ospetsu haren oroitzapena.

## **B. – GURTZA SAN PRUDENTZIORI**

Arabian San Prudentzio herriko zaindaria izan da antzinatek, eta Gasteizko kontzejuak -besteak beste- gutxienez XV. mendetik sartu zuen gorde beharreko jaietan.

obispo de Tarazona; 4º. Que fue enterrado en su sepulcro de Monte Laturce, donde en el año 950 todavía descansaba su cuerpo venerable; posteriormente en el año 1052 sus reliquias pasan a depender del monasterio benedictino de S. María de Nájera. Son estos los datos escuetos que marcan su existencia y que tienen cierto fundamento histórico.

Calendarios mozárabes de los años 992, 1039, 1052 y 1069, 1092 consignan la fiesta de San Prudencio en el 28 de abril. Lo que demuestra que también en el siglo X y XI era ya general la celebración de ese día en la Iglesia peninsular.

### **Un aspecto interesante y significativo que quisiera resaltar:**

Es la importancia del pueblo de Armentia, que fue el centro religioso alavés más importante de la Alta Edad Media y que cuenta con la primera catedral del País Vasco, pues fue sede de un obispado que existió ya a finales del siglo IX y ciertamente en la primera mitad del siglo X. Diócesis que se crea en una época en que las tierras del Sur de la Península se encontraban dominadas por el poder musulmán. Esta diócesis de Armentia fenece igual que la de Valpuesta, en el año 1087.

El obispado de Álava o de Armentia ¿por qué razón se crea o funda en Armentia y no en otras poblaciones más insignes como podrían ser Abendaño, Gasteiz o Estibalitz, Veleia, o Hagurain-Salvatierra, Divina/Echavarri Viña, etc.? Posteriormente tuvo el rango de colegiata hasta el año 1496. Seguramente estaba vivo todavía el recuerdo de aquel insigne obispo de Tarazona y árbitro de paz en Osma, nacido precisamente en Armentia.

## **B. – CULTO A SAN PRUDENCIO**

En Álava se ha tenido a San Prudencio por Patrón de la tierra desde lejanas épocas, y el Concejo vitoriano –entre otros- lo incluyó entre sus fiestas obligadas al menos desde el siglo XV.

San Prudentzio gurtzeko ohitura 1052. urteaz geroztik hasi zen sendo zabaltzen. Ordura arte Monte Laturcen gordetako erlikiak Najerako beneditar monasteriora eraman ziren, eta antzinatasun ezezaguna daukaten brontzeko xafla bitan zizelkatuta zegoen Najerako S. María la Real elizako klaustroan.

Adierazpen liturgikoak areagotzen joan ziren eta erlikiei egindako gurtza orokortu egin zen. Aro Modernoaren hastapenetan haren izen eta babespean jarritako entitate txikien hazkundea nabarmena izan zen: elizak, basilizak, kofradiak, kaperak, apaiztegiak... Bultzada liturgikoarekin batera, adierazpen ikonografikoak ere areagotu egin ziren.

## 1. – GASTEIZEN

Esan daiteke gure hirian gure Santuarenganako jaiera oso hedatuta egon zela eta dagoela.

Normala denez, lehen euskal Santuarenganako deboziorik handiena Armentian dago: haren Basilikan (haren 4 irudi daude), Santuaren Etxean (1806-1808. urteetan berrizatu zen) eta Santuaren monumentuan (1938an eraiki zen). Hiriaren barruan Santa Mariaren kolegio-eliza (katedral zaharra) daukagu eta erlikiak lekualdatu zirenez geroztik, 1580an kofradia bat sortu zen; hango kideak ziren haren kalonje guztiak eta auzokide ia denak, eta bertan emanaldi ospetsuak egingen ziren. Egungo **SAN PRUDENTZIOREN LAGUNAK** kofradia 1580an sortutakoaren jarraipena da. Desagertu egin zen, baina Santuarenganako jaieradun batzuei berrezartzea bururatu zitzairen 1990ean. Egun Kofradia indartsua da, 500 anakidetik gora dauzka eta helburu, xede eta jarduerara asko ere bai.

San Prudentziorenganako debozioak bere lekua dauka gure hirian:

- San Prudentzioren Kaperara Andra Mari Zaharreko katedralean.

La difusión del culto a San Prudencio arranca con cierta fuerza a partir del año 1052. Sus reliquias, que hasta entonces habían estado en Monte Laturce, fueron trasladadas al monasterio benedictino de Nájera. esculpido en dos láminas de bronce de desconocida antigüedad que se hallaba en el claustro de la iglesia de S. María la Real de Nájera.

Las manifestaciones litúrgicas fueron creciendo y se generalizó la veneración de sus reliquias. A comienzos de la Edad Moderna se experimentó un notable crecimiento de entidades menores que se ponían bajo su advocación y protección, como iglesias, ermitas, cofradías, capillas, seminarios... Paralelamente al empuje litúrgico, la expresión iconográfica fue haciéndose más notable.


## 1. – EN VITORIA

El culto y devoción a nuestro Santo podemos decir que estuvo y está muy extendido en nuestra ciudad.

Como es lógico, el punto mayor de la devoción al primer Santo vascongado está en Armentia: en su Basilica (donde existen 4 imágenes suyas), en la Casa del Santo (restaurada por los años 1806-1808) y en el monumento al Santo (construido en 1938). Ya dentro de la ciudad tenemos la iglesia colegial de Santa María (catedral vieja) y desde el traslado de las reliquias, surge en 1580 una cofradía a la que pertenecían todos sus canónigos y casi la totalidad del vecindario, celebrándose solemnes funciones. La actual cofradía **AMIGOS DE SAN PRUDENCIO** es continuadora de la fundada en el año 1580. Había desaparecido, pero un grupo de personas devotas del Santo, tuvo la feliz idea de restaurarla en 1990. Hoy es una Cofradía pujante, con más de 500 cofrades, con muchos objetivos, fines y actividades.

La devoción a San Prudencio está presente en nuestra ciudad:

- La Capilla de San Prudencio en la catedral de Santa María la Vieja.





- Santu zaindariaren irudiak Katedral Berrian.
- San Prudentzioren beiratea Gasteizko Apaiztegiko kaperan.
- San Pedroko elizan koloredun kristalezko beste irudi bat jarri zen.
- Babes-etxeko atzealdean San Prudentzioren eskultura handi bat dago (gaur egun San Prudentzioko Zahar-etxea da).
- San Prudentzioko Egoitzako kaperako irudia.
- Elurretako Ama Birjinaren Egoitzako irudia (1902ko data dauka).
- Batzar Nagusietako San Prudentzioren margolana (1762. urtekoa).
- San Bizenteko irudia sakristiatik gertu.
- Aliko San Millango Elizako Santuaren eskultura Sakristian.
- La Catedral Nueva con varias imágenes del Santo patrón.
- Una vidriera de San Prudencio en la capilla del Seminario de Vitoria.
- Otra imagen en cristal coloreado se instaló en la iglesia de San Pedro.
- Gran escultura de San Prudencio colocada en la parte posterior de la antigua capilla del Hospicio (hoy Residencia de ancianos de San Prudencio).
- Imagen en la capilla de la Residencia de San Prudencio.
- Imagen en la Residencia de Nuestra Señora de las Nieves (fecha en 1902).
- En las Juntas Generales, cuadro de San Prudencio (año 1762).
- Imagen en la iglesia de San Vicente en la zona próxima a la sacristía.
- Iglesia de San Millán de Ali, representación escultórica del Santo en la Sacristía.

- Gasteizko Arte Ederretako Museoa.

San Prudentzioko jaiak 1483ko Gasteizko kontzejuaren Gorde beharreko jaien Katalogoan dago. Baita Elizbarrutiaren Egutegian ere 1410ean.

Armentia kolegio-eliza 1496an Gasteiza aldatu zenetik, kabildoa Armentia joaten zen apirilaren 27an bezperetara eta 28an han egiten zen emanaldira, Alejandro VI. aita santuaren bulda betez.

*Izan ere, Gasteizen San Prudentzioko Ikastetxe-Apaiztegia sortu zen (1597), gaur egun San Prudentzioko Babes-etxearen Egoitza. Santa Mariako kofradia batek ere izen bera izango du urte horietan; baita Talavera de la Reina eta Salamancako Ikastetxe banak ere, biak ala biak San Prudentzio Arabako zaindariaren izenpean.*

## 2. – ARABAKO LURRALDEAN

San Prudentziorenganako debozioa Araba osoan zabaldu da; haren baselizak lurraldeko bide eta eskualde askotan eraiki ziren Ebroko hegaletaraino, hala nola lekorako San Prudentzioren baseliza (1652), XVIII. mendean eraitzia.

Gure arbasoentzat erlijioak zeukan garrantziak, beraz, esparru erlijioso askoren eraikuntza ekarri zuen. Eraikin xume eta txiki haien irudiaren atzean tradizio eta folklorezko mundu oso bat dago.

Baselizok paisaiaren elementu bihurtu dira eta herri debozioaren lekukotasuna utzi digute. Mendian ezkutatutako loreen parekoak dira, xumeak eta larrekoak, baina kolore bizikoak eta lurrin finekoak.

Gure Zaindaria gurtzeko baseliza horien jatorria gizakiaren beraren ahulezian bilatu behar da, jainkoarekin, gure kasuan Santuarekin, komunikatzeko premia izpiritualen.

- Museo de las Bellas Artes de Vitoria.

La fiesta de San Prudencio está en el Catálogo de fiestas tradicionales de precepto de Vitoria en el Concejo vitoriano de 1483. Y el Calendario de la Diócesis en 1410.

Desde que fue trasladada a Vitoria la colegita de Armentia, en 1496, el cabildo acudía al pueblo de Armentia el día 27 de abril a vísperas y el 28 a la función que allí tenía lugar, cumpliendo lo ordenado en la bula de del papa Alejandro VI.

*Surgen, efectivamente, en Vitoria el Colegio-Seminario de San Prudencio (1597), hoy Residencia del Hospicio San Prudencio. Una Cofradía de Santa María llevará también ese nombre por esos años; como asimismo un Colegio de Salamanca y de Talavera de la Reina, ambos igualmente bajo la advocación de San Prudencio, Patrón de Álava .*


## 2. – En la Provincia de ALAVA

La devoción a San Prudencio se ha extendido por toda Álava; sus ermitas se levantaron en los caminos y en las comarcas más diversas de la provincia hasta las laderas del Ebro, como la ermita de san Prudencio de Yécora (1652), derruida ya en el siglo XVIII.

La importancia de la religión para nuestros antepasados supuso, pues, la construcción de numerosos recintos religiosos. Detrás de la silueta sencilla y diminuta de sus construcciones existe todo un mundo de tradiciones y folclore

Ermitas que son elementos del paisaje y testimonio de la devoción popular. Ermitas que son como flores escondidas en el monte, sencillas y silvestres, pero de vivo color y de los aromas más exquisitos.

El origen de estas ermitas de culto a nuestro Patrono hay que buscarlo en la propia debilidad del ser humano, en la necesidad espiritual de comunicación con la divinidad, en nuestro caso con un Santo.



Hau da Araban San Prudentziori eskaintako baselizek utzi diguten ikuspegia:

San Prudentzioren baseliza Okendoko San Romanen (1710 urteaz geroztik).

San Prudentzioren baseliza Zigoitian (egun desagertuta).

*San Prudentzio* Elosun, baseliza eta kofradia.

*San Prudentzio* Lezaman.

*San Prudentzio* Mendijurren.

*San Prudentzio*, Panguako barrutia (Trebiñu).

Bernedo, Barriobusto, Oion, Eskuernaga, Berrikano, Ziriano, Bastida, Gauna, Egiluz, Respaldiza, Araia; haien elizetan irudiak, margolanak, etab. dauzkate.

Baina arabarren herrikide ospetsuarenganako debozioari emandako bultzada nagusia Arabako Batzar Nagusien aldarrikapen hirukoitza (1643, 1644 eta 1669) izan da; haren arabera San Prudentzio aukeratu zuten Arabako zaindari, eta Vatikanok halaxe onartu zien 1698ko martxoan, Zaindariaren eta haren babespekoen pribilegio, eskubide eta betebeharrak guztiekin. 1858. urtetik Gasteizko elizbarrutiko Zaindaria ere bada.

Hori dela eta, urtero 28an Armentiak eta Gasteizek jai handia ospatzen dute euren santuaren omenez, eta basilikaren inguruan, ohitura denez, arabarrak ospatzeko biltzen dira eta bertan, harrezkeroztik (irakurri eta entzun dudagatik), ohikoa da barraskiloak eta perretxikohak jatea.

### 3. – San PRUDENTZIOrenganako gurtza gure Mugetatik kanpo eta Munduan

Gurtza ofizialaz eta elizakoaz gain, gure santuak izan duen herri debozioa ere azpimarratu behar da, baita gure lurretatik at ere, baseliza, parroquia, erreta, eta irudien bitartez...

Las ermitas dedicadas a san Prudencio en Álava ofrece el siguiente panorama en su difusión:

Ermita de San Prudencio en San Román de Oquendo (a partir del año 1710).

Ermita de San Prudencio en Cigoitia (hoy desaparecida).

*San Prudencio* en Elosu, ermita y cofradía.

*San Prudencio* en Lezama.

*San Prudencio* en Mendijur.

*San Prudencio*, término de Pangua (Treviño).

Bernedo, Barriobusto, Oyón, Villabuena, Berricano, Ciriano, Labastida, Gauna, Egiluz, Respaldiza, Araya, que tienen en sus iglesias, imágenes, cuadros, etc.

Pero la principal fuerza o impulso para la devoción de los alaveses a su glorioso paisano es la triple declaración de las Juntas Generales de Álava (1643, 1644 y 1669) de elegir como patrono de Álava a San Prudencio, y así lo otorgó la Santa Sede en marzo de 1698, con todas la prerrogativas, derechos y obligaciones del Patrono y de los patrocinados. Es también Conpatrono de la diócesis de Vitoria desde el año 1858.

De manera que cada año, el día 28 celebra Armentia y Vitoria una gran fiesta en honor a su santo y en las inmediaciones de la basílica, como es costumbre, se reúne el pueblo alavés a celebrarlo y donde desde entonces (por lo que he leído y oído) es típico comer caracoles y revuelto de setas.

### 3. – El culto a San PRUDENCIO fuera de nuestras Fronteras y en el Mundo

A parte del culto eclesiástico y oficial, es interesante resaltar la devoción popular de la que también ha sido objeto nuestro santo, incluso fuera de nuestra tierra a través de ermitas, parroquias, retablos, efigies, etc.

Gipuzkoan, Nafarroan, Errioxan, Madrilen, Sorian, Tarazonan, Benidormen... Munduan ere tenpluak, irudiak eta erretaulak eskaini dizkiozte: Cuzcon (Lima), Mexikon, Kuban, Manilan... Horiek guztiek arabarrek Armentia eta San Prudentziogatik sentitzen dituzten maitasun eta eskerrona adierazten dituzte.

#### 4. – BAKEAREN AINGERUA

Arabar gutxiak dakite gure San Prudentzio antzinako iturrien bitartez “Bakearen aingerua” izenez deitu, gogoratu eta ezagutu dela. Arestian aipatu dugu Osman sortutako ikamikan izan zuen parte hartzea hura konpontzeko deitu zutenean. Prudentzioren arbitrajea eskatu zen. Interesgarriena da Prudentzio hara iritsi, ikusi eta garaitu egin zuela. Zesar bezalaxe. Hobeto esanda, erremedio Santuarekin. Haren nortasunak, ontasunak eta gizon bakegile bezala zeukan karismak, auzilarien jarrera kontrajarri itxiak direla-eta ezinezkoa zirudiena lortu zuten egun gutxitan.


Denok dakigu zein zaila den bakean bizitzea eta zenbat formula eta ahalegin gastatzen diren garaile atera dadin. Baina bakeak ez dauka mundura bakea ekartzera etorri zen Haren ordezkariak bezalako egilerik. Bakea lortzeko zailtasun horrexegatik, Osman San Prudentzion izan zuen paper bakegileak zirrara handia sortu bide zuen; herriaren aldarria kopistengana, liburuetara iritsi zen, eta hamahiru mendez ez da galdu San Prudentziori **Bakearen Aingerua** deritzon tradizioaren haria. Osman Bakegile bezala nabarmendu zen eta historiara **“Bakearen Aingerua”** bezala pasatu da. Horrela aldarrikatzen du Eliza katolikoak apirilaren 28ko otoi-tzetan, eta horrelaxe aurkeztu zuen Arabako Lurraldeak *Quadernos de Leyes y Ordenanzas de la tierra* (1762) delakoan, bere oinetan emagin noblearen irudipean agertzen den Arabari bakezko sorta bat eramanez.

Así en Guipúzcoa, Navarra, la Rioja, Madrid, Soria, Tarazona, Benidorm... Y en el mundo le han dedicado templos, efigies, retablos en Cuzco (Lima), Méjico, Cuba, Manila... Todo ello señala el amor y gratitud de los alaveses a Armentia y a San Prudencio.

#### 4. – ANGEL DE LA PAZ

Pocos alaveses saben que nuestro San Prudencio viene evocado, recordado y conocido a través de sus fuentes antiguas, como ‘Angel de la paz’. Ya hemos aludido a la intervención de Prudencio en el litigio surgido en Osma donde fue llamado nuestro obispo para arreglarlo. Se requirió el arbitraje de Prudencio. Lo interesante es que San Prudencio llegó, lo vio y lo venció. Como César. Mejor dicho, con mano de Santo. Su personalidad, su bondad y su carisma de hombre conciliador, consiguió en pocos días lo que parecía imposible, dadas las posturas encontradas e intransigentes de los litigantes.

Todos sabemos lo difícil que es vivir en paz y cómo se gastan fórmulas y esfuerzos para hacerla triunfar. Pero la paz no tiene mejores artífices que los representantes de Aquel que vino al mundo a traer la paz. Por esa dificultad de alcanzar la paz, la intervención pacificadora de San Prudencio en Osma debió impresionar fuertemente; y el clamor popular pasó a los copistas, a los libros, y durante trece siglos no ha podido desprenderse del hilo de la tradición que sigue llamando a San Prudencio: **Angel de la Paz**. En Osma se destaca como Pacificador y pasa a la historia como **“Angel de la Paz”**. Así lo proclama la Iglesia católica en sus oraciones del día 28 de abril, y así lo presentó la Provincia de Álava en los *Quadernos de Leyes y Ordenanzas de la tierra* (1762), portando un ramo de paz para Álava que aparece postrada a su pies en figura de noble matrona.





Bakerako, indarkeria eta terrorismoa gure lurretik ezabatzeko grina gure herrikide gehienen bihotzean dago.

Gure Zaindariari buruzko azalpen biografiko labur honek San Prudentzioren nortasun historikoa eta harenganako debozioa indartzeko balio dezala nahi nuke. Eta gure Arabako Lurralde txit nobleak Seme eta Zaindaritzat hartzen jarrai dezan, baita Jainko gure Jaunaren jagole ospetsutzat ere.

Lurraldeko zaindari Estibalizko Ama Birjinak, eta San Prudentziok babes gaitzatala!

Eskerrik asko zuen parte hartzeagatik.

Jai Zoriontsuak. Arratsaldeon guztioi.

El ansia de la paz, la eliminación de la violencia y el terrorismo en nuestra tierra anida en el corazón de la mayoría de nuestros ciudadanos.

Esta breve semblanza sobre nuestro Patrón quisiera que sirviese para reforzar la personalidad histórica de San Prudencio y extender su devoción. Y que nuestra nobilísima Provincia de Álava le siga reconociendo por Hijo y por Patrón, además que como valedor insigne ante Dios, nuestro Señor.

¡Que la Virgen de Estíbaliz, patrona de la Provincia y San Prudencio nos protejan!

Gracias por vuestra participación.

Buenas Fiestas. Arratsaldeon gustioi.

**Fr. Saturnino Ruiz de Loizaga** • Roma

**Teologian doktorea eta Paleoграфияn eta Artxibistikan diplomaduna**  
Doctor en Teología y diplomado en Paleografía y Archivística



SAN PRUDENTZIOREN ETA ESTIBALIZKO ANDRE  
MARIAREN OMENEZKO 2008KO

Festen Programa  
Programa de Fiestas

EN HONOR A SAN PRUDENCIO  
Y NUESTRA SEÑORA DE ESTIBALIZ 2008



Arabako  
Foru Aldundia



Diputación  
Foral de Alava



**Apirilak 22, asteartea****VITORIA-GASTEIZ****Teatro Principal Antzokia****19:30**

San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren omenezko jaiak iragartzeko pregoia.

Pregoiaria:

José Antonio Querejeta Altuna  
*Saskibaskonia S.A.D.ren Presidentea*

Kontzertua: Javier Antoñana & Nika  
Bitchiashvili (Biolin eta gitarra)

**22 de abril, martes****VITORIA-GASTEIZ****Teatro Principal Antzokia****19:30**

Pregón anunciador de las Fiestas en honor de San Prudentio y Nuestra Señora de Estibaliz

Pregonero:

José Antonio Querejeta Altuna  
*Presidente de Saskibaskonia S.A.D.*

Concierto: Javier Antoñana & Nika  
Bitchiashvili (Violín y guitarra)

**Apirilak 26, larunbata****VITORIA-GASTEIZ****Probintzia Plaza****17:00**

Arabako Ohiko Plateren XLIII. Lehiaketa

**18:00**

Arabako Errioxako Ardoaren Dastatzailen  
XXXIX. Lehiaketa

**VITORIA-GASTEIZ****Probintzia Plaza****18:00-20:00**

XXIV Arabako Fanfarre Eguna  
Parte hartzen duten fanfarreen kalejirak hiriko kaleetan zehar.

**20:00**

Fanfarreak elkartzea eta errepertorioa jotzea.

**26 de abril, sábado****VITORIA-GASTEIZ****Plaza de la Provincia****17:00**

XLIII Concurso de platos típicos alaveses

**18:00**

XXXIX Concurso de catadores/as de vino de Rioja Alavesa





## Apirilak 27, domingo

### VITORIA-GASTEIZ Espainia Plaza

**20:00-21:00**

San Prudentzioren Erretreta Udaletxeko balkoitik.  
Udal Folklore Akademia

### Probintzia Plaza

**21:00-22:00**

San Prudentzioren Erretreta Aldundiaren Jauregiko balkoitik, Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko tronpetajotzaile eta atabalerok eman.

Erretreta joaldien artean, talde hauen emanaldiak:  
"Algara"  
"Txukuna"

**23:30-2:30 (goizaldea)**

San Prudentzio Danborrada  
Parte hartzen duten Gastronomía Elkarteak Probintzia plazan biltzea. Gero, desfilea Erdi Aroko hirigunean eta erdi aldeko kaleetan.



### VITORIA-GASTEIZ Plaza de la Provincia

**18:00-20:00**

XXIV Arabako Fanfarre Eguna  
Pasacalles de las fanfarres participantes por las calles de la ciudad

**20:00**

Concentración de las fanfarres e interpretación del repertorio.



## 27 de abril, domingo

### VITORIA-GASTEIZ Plaza de España

**20:00-21:00**

Interpretación de la Retreta de San Prudencio desde la balconada de la Casa Consistorial.  
Academia Municipal de Folklore

### Plaza de la Provincia

**21:00-22:00**

Retreta de San Prudencio desde la balconada del Palacio de la Diputación, interpretada por los Trompeteros y Atabaleros de la Diputación Foral de Álava y Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Entre toques de retreta, actuación de los grupos:  
"Algara"  
"Txukuna"





**1:00 (goizaldea)**

Arka Plaza  
Herri dantzaldia "Joselu Anaiak" musika  
taldearekin

## Apirilak 28, astelehena

**VITORIA-GASTEIZ**  
**Probintzia Plaza**

**9:00**

"Alava" zortzikoa, Arabako Foru Aldundiko  
txistulari eta tronpetajotzaille bandak emana.



**23:30-2:30 (madrugada)**

Tamborrada de San Prudencio  
Concentración en la Plaza de la Provincia  
de las distintas Sociedades Gastronómicas  
participantes y posterior desfile de las  
mismas por las calles del casco medieval y  
centro de la ciudad.

**1:00 (madrugada)**

Plaza del Arca  
Verbena popular amenizada por el grupo  
musical "Joselu Anaiak"

## 28 de abril, lunes

**VITORIA-GASTEIZ**  
**Plaza de la Provincia**

**9:00**

Interpretación del zortziko "Alava" por la  
Banda de Txistularis y Trompeteros de la  
Diputación Foral de Alava.

**12:00**

XXIX Tamborrada  
"Biznietos de Celedón"  
Recorrido: Fuente de los Patos, centro de  
la ciudad, casco medieval, Fuente de los  
Patos.



**12:00**

XXIX. Danborrada  
 "Biznietos de Celedón"  
 Ibilbidea: Ahateen Iturria, hiriaeren erdi aldea,  
 Erdi Aroko hirigunea, Ahateen Iturria

**18:00-20:30**

Haurren Danborrada  
 Ibilbidea: Doña Otxanda dorretxea, Probintzia  
 plaza, Andre Maria Zuriaren plaza, Espainia  
 plaza, Probintzia plaza.

**18:00-20:30**

Tamborrada infantil  
 Recorrido: Torre de Doña Otxanda, Plaza de  
 la Provincia, Plaza de la Virgen Blanca, Plaza  
 de España, Plaza de la Provincia.

## ARMENTIA

**11:00**

Misa precedida de procesión por el exterior  
 de la Basílica.

**12:00**

Aurreku de honor a la finalización de los  
 actos religiosos.

**12:00**

Campas de Armentia: actuación de  
 dantzaris de Araba Dantzarien Biltzarra  
 Grupo de danzas "Armentia ikastola"

**12:30**

Exhibición de Herri Kirolak:  
 Campeonato aizkolari de Oro 2008  
 Levantamiento de piedra:  
 Carlos Atxa y Tigre de Salinas



## ARMENTIA

**11:00**

Prozesioa basilikaren kanpoko aldean eta, ondoren, meza.

**12:00**

Elizkizunak amaitutakoan, ohorezko aureskua.

**12:00**

Armentia zelaia: Arabako Dantzarien Biltzarreko dantzarien emanaldia "Armentia ikastola" Dantza Taldea

**12:30**

Herri Kirolen erakustaldia  
2008ko Urrezko Aizkolarien Txapelketa  
Harri jasotzaileak:  
Carlos Atxa eta Tigre de Salinas

**18:00**

Herri dantzaldia Armentia zelaian  
"Lisker" musika taldearen emanaldia



## Apirilak 30, asteazkena

### VITORIA-GASTEIZ

#### Probintzia Plaza

**11:00-14:00/17.00-20:00**

Haurren jarduerak eta jolasak, puzgarriak, txirristak, hamakak, etab.



**18:00**

Verbena popular en las campas de Armentia  
Actuación del grupo musical "Lisker".

## 30 de abril, miércoles

### VITORIA-GASTEIZ

#### Plaza de la Provincia

**11:00-14:00 /17.00-20:00**

Actividades y juegos infantiles, hinchables, toboganes, hamacas, etc.

## 1 de mayo, jueves

### ESTÍBALIZ

**09:00**

XV Concurso de pintura rápida al aire libre

**11:00**

XVI Concurso culinario a base de patata alavesa

## Maiatzak 1, osteguna

### ESTIBALIZ

**09:00**

Aire Zabaleko Pintura Azkarraren XV. Lehiaketa

**11:00**

Arabako Patataren XVI. Sukaldaritza Lehiaketa

**11:00**

Elkarreza santutegian

**12:00**

Santutegian zeinu bidezko meza (gorrentzat)

**12:00**

Arabako Aurresku eta Dantza Solteko XVI.  
Txapelketa

**12:30**

Herri Kirolen erakustaldia  
2008ko Urrezko Aizkolarien txapelketa  
23tik beherakoen maila: Jauregi  
Erakustaldia: Beste modalitateak

**17:00**

Zenbait herri jarduera.  
Pilota partidak: kimuak, gazteak  
Musika animazioa

**17:30**

Pintura erakusketa Harrera Etxean.  
Aire Zabaleko Pintura Azkarraren XV.  
Lehiaketara aurkeztutako lanak.



**11:00**

Misa concelebrada en el santuario

**12:00**

Misa en el santuario mediante lengua de  
signos (personas sordas)

**12:00**

XVI Campeonato de aurresku y baile al  
suelto de Álava

**12:30**


Exhibición de Herri Kirolak  
Campeonato Aizkolaris de Oro 2008  
Categoría Sub-23: Jauregi  
Exhibición: Otras modalidades

**17:00**

Actividades populares varias  
Partidos de pelota: alevines, infantiles.  
Animación musical

**17:30**

Exposición de pintura en el Centro de  
Acogida  
Trabajos presentados al XV Concurso de  
pintura rápida al aire libre.



# Armentiako Administrazio Batzarra

## Junta Administrativa de Armentia

### Apirilak 27, igandea

#### Kultura Etxea

**19:30**

Festen inaugurazio ofiziala  
Suziria eta herri danborrada Gatzagako  
Bandarekin  
Kanpai-irauketa

**19:45**

#### San Prudentzioren monumentua

Lore eskaintza eta ohorezko aureskua

**21:00**

Auzoko txuleta-jatea

**22:30**

#### Areto Nagusia

Dantzaldia orkestorekin

### 27 de abril, domingo

#### Casa de Cultura

**19.30**

Inauguración oficial de las fiestas  
Chupinazo y tamborrada popular con la  
Banda de Salinas  
Volteo de campanas

**19:45**

#### Monumento del Santo

Ofrenda floral y auresku de honor

**21:00**

Chuletada vecinal

**22:30**

#### Salón de actos

Bailables con orquesta



## Apirilak 28, astelehena

**10:00**

Dianak eta kalejirak Gatzagako Bandarekin

**10:30**

### San Prudentzioren monumentua

Agintariei harrera

**11:00**

Meza pontifikala

**12:00**

### Kontzeju Aretoa

Agintariei harrera

**18:00-21:00**

Txarangak eta trikitixa herriko kaleetatik

## Apirilak 29, asteartea

**14:00**

Adinekoen omenezko bazkaria

**18:00**

Emakume eta gizonentzako igel-toka eta bolo txapelketa

**20:30**

Auzoko sardina-jatea

**22:00**

### Areto nagusia

Helduentzako umorezko ikuskizuna: "Solas"

## Apirilak 30, asteazkena

**12:00**

Umeentzako igel tiro eta bolo txapelketa

**13:00**

Patata tortila txapelketa

**17:00**

### Areto nagusia

Umeentzako antzerkia: "Quizás el bosque"  
